



Esp.kodea: 2022PHEL0004
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: 2022ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 2 herritarren
laguntzaile

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
2 herritarren laguntzaile	Kaleko lan taldea, herritarrei informazioa emateko eta elkarbizitza gaiekin laguntzeko	% 100	5 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzzaile gisa alta emanda dauden pertsona langabetuak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2021eko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdietan edo Gazte Enpleguko 2014-2020 programa operatiboaren esparruan 2021eko ekitaldian kontratatuak izan diren pertsonak.
- Euskara 2. HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez).
- Sexu delituengatik aurrekaririk ez izatea.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiak egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.



Esp.kodea: 2022PHEL0004
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: 2022ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 2 herritarren
laguntzaile

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**

- 55 urtetik gorakoa izatea: 5 puntu
- Luzaroko langabeak: 5 puntu. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.

- **Probak:**

- *Teorikoa:* lanpostuaren funtzioekin (Arrasateko zerbitzu publikoen eraikin nagusien eta eskolen kokalekuekin...) lotutako idatzizko proba. Aukerako erantzunak ematen dituzten galdera-sortaz osatuta egongo da, 0tik 25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 atera behar da aurrera egiteko.
- *Praktikoa:* lanpostuan egin beharreko lanaren gaineko jakintza eta lana egoki betetzeko gaitasuna aztertzeko ahozko edo idatzizko proba: 0tik 25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 puntu atera behar da aurrera egiteko.